

**ERABAKIA, HAUTAKETA PROZESU HONETAKO EPAIMAHAIARENDA:
HIRUGARREN SAILKAPEN TALDEA, TEKNIKARI ESPEZIALISTEN
KATEGORIAN, ITURGINTZA ESPEZIALITATEAN (ERREKTOREAREN 2018ko
AZAROAREN 2ko ERABAKIAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA, EUSKAL
HERRIKO UNIBERTSITATEAN LAN KONTRATUDUN LANGILE FINKOAK
SARTZEKO).**

Teknikari espezialistak, (Iturgintza espezialitatea) III. taldeko lan kontratudun langile finko sartzeko hautaketa prozesua gainditu duten pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratu ondoren 2021eko uztailaren 13an, interesdunei hamar eguneko epea eman zitzaien erreklamazioak jartzeko, 8.6 oinarri orokorrak dioen moduan.

Epaimahaiak ez du jaso aipatutako zerrendaren aurkako erreklamaziorik eta, bilera eginda, honako hau erabaki du, bat etorrita zortzigarren eta hamabigarren oinarri orokorretan eta deialdiko oinarri espezifikoez zazpigarren puntuan adierazitakoarekin:

LEHENENGOA.- UPV/EHUn lan kontratudun langile finkoak sartzeko 2016 eta 2017ko lan eskaintza publikoetako beste hautaketa prozesu batzuetan erreklamazioak jarri dira, berdinketa ebazteko lanpostuan igarotako egunen irizpidearen kontra; eta ikusita akats bat egin zela egunak kalkulatzera, zuzendu egin da.

BIGARRENA.- Argitara ematea Teknikari espezialistak, (Iturgintza espezialitatea) III. taldeko lan kontratudun langile finko sartzeko hautaketa prozesua gainditu duten pertsonen behin betiko zerrenda, erabaki honen eranskinean jasota dagoen moduan.

HIRUGARRENA.- Iragarkia argitaratzea UPV/EHUko Lan Eskaintzen Atarian (https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp), non ikusi ahal izango den hautaketa prozesua gainditu duten pertsonen behin betiko zerrenda.

LAUGARRENA.- Kontuan hartuta 7.4 oinarri orokorrak dioela epaimahaien erabakiak aurkaratu ahal izango direla Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehaztutako kasuetan eta moduan (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa), administrazio bideari amaiera ematen ez dion erabaki honen kontra gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio UPV/EHUko gerenteari hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. Errekurtsio hori aurkez daiteke UPV/EHUko erregistroetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aipatzen diren lekuetan (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 16.4 art.), haren azken xedapenetako zazpigarrenean egiten den salbuespenarekin, erregistro elektronikoari buruzko xedapenak aplikatzen hasteko bi urteko epearen inguruan.

Libe de Aguirre de Arriaga
Epaimahaiko idazkaria